



**Osakidetza**


EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES  
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA  
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA  
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Prestakuntza Espezializatuko Programa  
Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea  
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)

## Ospitaleko Farmazia

# Gaitasunetan oinarritutako Prestakuntza Espezializatua Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea

**Irakaskuntza-ikuspegia:  
Zazpi gaitasun-eremuetan oinarritutako lanbide-profila**



**Konpromisoa: Erantzukizun sozialean oinarritutako irakaskuntza-akreditazioa**

Erreferentzia: Morán-Barrios J. **Un nuevo profesional para una nueva sociedad. Respuestas desde la Educación Médica: la formación basada en competencias.** Rev. Asoc. Esp. Neuropsiq. 2013; 33 (118): 385-405.  
<http://www.revistaaen.es/index.php/aen/article/view/16614/16454>



**Osakidetza**

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES  
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA  
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA  
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

**Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea**  
**Prestakuntza Espezializatuko Programa**  
**Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)**



**Osakidetza**

**GURUTZETAKO UNIBERTSITATE OSPITALEA**  
**HOSPITAL UNIVERSITARIO CRUCES**

www

## OSPITALEKO FARMAZIA

Ospitaleko Farmaziako Zerbitzuak prestakuntza integrala eskaintzen du ospitalean medikamentuak erabiltzeko prozesuarekin lotutako guztiari buruz; adibidez, stockak kudeatzen ditu, botikak banatzen eta tratamendu farmakologikoen balioztatze eta optimizazioan sakontzen du. Ospitalean dagoen pazientearen arreta farmazeutikoari buruzko prestakuntza eskaintzen du, ahaztu gabe ingurune ambulatorioan zainketen jarraipenak duen garrantzia, baita medikazio guztia bat etortzeak ere. Gure xedea da pazientearen asistentzia-prozesua kalitatezkoa izatea, bakarkako arretaren bitartez, zeinak farmakoterapia eraginkor eta segurua ahalbidetuko duen. Eginkizun hori da arreta farmazeutikoaren azken xedea, eta pazientearen ardura duen lantalde klinikoarekin elkarlanean egiten da, bertan parte hartuta eta elkar osatuta.

Jarraian hauek adierazten dira:

- Nor gara
- Non gaude
- Prestakuntza-eskaintza
- Prestakuntza-ibilbidea (Errotazioak)
- Ikerkuntza
- Prestakuntzaren ebaluazioa



## Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES  
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA  
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA  
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea  
Prestakuntza Espezializatuko Programa  
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



Osakidetza

GURUTZETAKO UNIBERTSITATE OSPITALEA  
HOSPITAL UNIVERSITARIO CRUCES

www

## Nor gara



**Zerbitzuburua:**  
**Monike de Miguel Cascón dk.**



**Egoiliarren tutorea:**  
**Mª Ángeles Gil Lemus dk.**

Farmaziako Zerbitzua 70eko hamarkadan sortu zen. 1982. urtean hasi zen egoiliarren prestakuntza, eta orain arte iraun du, etenik gabe. Zerbitzua akreditatua dago urtean bi egoiliarri eskaintzeko prestakuntza. Dena den, eskaintza lan-merkatuko beharretara egokitzen saiatzen gara, eta, horregatik, batzuetan eskaintzen diren lekuak gutxiago izaten dira.

Urte hauetan guztietan, honako hauek zuzendu dute zerbitzua:

- Matilde Cancio Mel-ek
- José Luis Echevarri Guerrak
- Mª Luisa Mendoza Hayak
- Mª Puy Figuro Echeverriak

Farmaziako Zerbitzuko historian, nabarmentzekoak dira ondorengo gai hauek: laborategietara eskaerak egiteko autonomia; legeak behartzea farmazialariak espezialistak izatera; ingresatuta ez



**Osakidetza**

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES  
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA  
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA  
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

**Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea**  
**Prestakuntza Espezializatuko Programa**  
**Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)**



**Osakidetza**

**GURUTZETAKO UNIBERTSITATE OSPITALEA**  
**HOSPITAL UNIVERSITARIO CRUCES**

dagoen pazienteari ere eskaintzea asistentzia farmazeutikoa; dosi unitarioetan emandako medikamentuen sistema ezarri izana; jarduera klinikoari eskainitako egonaldiaren laugarren urtea onartu izana; farmazialariek eremuka lortzea gaitasunak; prozesuak robotizatu eta automatizatu izana, eta preskripzio elektronikoa ezarri izana ospitale guztian.

Zerbitzuaren bilakaera gure jardueraren bilakaerarekin batera joan da, eta inplikazio klinikoa gero eta handiagoa da. Lanaren automatizazio eta robotizazioari esker izan da hori. Gaur egunean, Farmazia Zerbitzua zerbitzuburu batek eta espezializazio-maila handiko 14 farmazialari espezialistak osatzen dute. Halaber, espezialista ez den farmazialari bat ere badago, saio klinikoak kudeatzeko kontratatua. Irakaskuntzako jarduera guztiz integratuta dago jarduera asistentzian, eta zerbitzuko adjuntu guztiek betetzen dute lan hori. Gainera, unibertsitate-ospitale bat denez, 6 hilabeteko egonaldiak egiten dituzte Euskal Herriko Unibertsitateko Farmazia lizentziaturako azken urteko ikasleek.

Paziente ingresatu guztien preskripzioen balioztatze farmazeutikoa da farmakoterapia seguruarekin daukagun konpromisoaren lehen neurria. Halaber, balioztatze hori Larrialdi Zerbitzuetan atenditutako pazienteen artean ere egiten da. Kanpoko Pazienteen Arreta Farmazeutikoaren Arloak, gainera, urtean 4.500 paziente baino gehiago atenditzen ditu. Preskripzio elektronikoa eta historia kliniko elektronikoa ospitale guztian eskuratu daitezkeenez, horrek bidea eman digu balioztatze ereduetan berrikuntzak egiteko, eta, hala, adibidez, balioztatze transbertsalak egin dira kontrako erreakzioak detektatuta, edota botikak doitu dira giltzurruneko gutxiegitasun kasuetan, e.a.

Aurreratzen ari gara pazientearen segurtasuna handitzeko metodoetan, eta barra-kodearen teknologia erabiltzen dugu medikamentuak emateko.

Ikerketa-lanetan ere parte hartzen dugu; bi modutan parte hartu ere: alde batetik, partaide modura ospitalean egiten diren saio klinikoetan, eta, bestetik, modu proaktibo batean ISAF proiektuetan; adibidez, gaur egun parte hartzen ari garen honetan bezala: “jaioberrien zainketa intentsiboetako



**Osakidetza**

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES  
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA  
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA  
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

**Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea**  
**Prestakuntza Espezializatuko Programa**  
**Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)**



**Osakidetza**

**GURUTZETAKO UNIBERTSITATE OSPITALEA**  
**HOSPITAL UNIVERSITARIO CRUCES**

www

unitateetan medikamentuen prestakuntzan errakuntzak prebenitzea” zentro anitzeko proiektua, edo iraganean egin ziren hauetan bezala: "Gurutzetako Ospitaleko (Barakaldo) Larrialdetako Zerbitzuen erabiltzaileek medikamentuekin izandako arazoak" ISAF beka, edo "Ospitaleko azterketa deskriptibo, prospektibo eta zentro anitzekoa erruki-medikamentuak baliatzeari buruz. Gehien baimentzen diren erruki-botiken eraginkortasun eta segurtasunaren azterketa. Kostuen azterketa" ISAF beka.

Farmakotekniako unitateari esker, botikak pazienteen behar indibidualetarako egokituta prestatu ahal dira eta baita asepsia ziurtatu ere hala behar duten prestakuntzetan. Halaber, merkatuan eskuratu ezin diren botikak prestatzen dira.

Medikamentuen Informaziorako Zentroak, ospitaleko informazio beharrei erantzuteaz gain, parte hartzen du Osasun Sailaren Ospitaleetako Medikamentuak Ebaluatzeko Batzordean.

Alta-ondoko informazioa: pazienteei beren terapiari buruzko informazioa emanda, hobeto betetzen dira helburu terapeutikoak.

Gure konpromiso klinikoak hainbat batzordetan parte hartzeri garrantzitsua, hala nola Farmazia Batzordean, Saio Klinikoen Batzordean, Infekzio Batzordean, Arrisku Medikamentuen Batzordean, Liburutegi Batzordean, Irakaskuntza Batzordean, Segurtasun Batzordean eta Osakidetza Farmaziako Batzorde Korporatiboan, besteak beste.

**Zerbitzua honako arlo hauetan egituratuta dago:**

- Kanpoko pazienteak atenditzeko arloa
- Logistikako eta teknologia berrien arloa. Stocken kudeaketa
- Farmakotekniako arloa
- Nutrizio klinikoko arloa
- Farmazia onkologikoko arloa
- Paziente kritikoak atenditzeko arloa



## Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES  
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA  
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA  
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea  
Prestakuntza Espezializatuko Programa  
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



GURUTZETAKO UNIBERTSITATE OSPITALEA  
HOSPITAL UNIVERSITARIO CRUCES

- Farmazia pediatrikoko arloa
- Medikamentuen informaziorako zentroa
- Medikazio-errakuntzak prebenitzeko arloa
- Saio klinikoaren arloa
- Ingresatutako pazienteen optimizazio terapeutikorako arloa. Alta-ondoko informazioa alta eta medikazio guztia bat etortzea
- Larrialdietako pazienteak atenditzeko arloa

Urteko jarduera hemen kontsulta daiteke:

[Ospitalea >Urteko Memoria osorik "Arlo klinikoak"](#)

## Non gaude

Ospitaleko Farmaziako Zerbitzua Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean dago:  
Gurutzetako Plaza z.g. Barakaldo 48903.  
Barakaldo, Bizkaia  
[Ikusi ospitalea Google Maps](#) aplikazioan

Zerbitzuko idazkaritza **beheko solairuan** dago.

Harremanetarako tel.: +34-94.600.6351

Posta elektronikoa:

[secretaria.FARMACIACRUCES@osakidetza.net](mailto:secretaria.FARMACIACRUCES@osakidetza.net)





**Osakidetza**

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES  
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA  
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA  
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

**Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea**  
**Prestakuntza Espezializatuko Programa**  
**Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)**



**GURUTZETAKO UNIBERTSITATE OSPITALEA**  
**HOSPITAL UNIVERSITARIO CRUCES**

www

## Prestakuntza-eskaintza

Gure antolakuntzari eta asistentzia-jarduera handiari esker, espezialisten prestakuntza eskaintzen eta bermatzen dugu, espezialitatearen beraren edukietan. Espiritu kritikoa eta arazoak benetan konpontzera bideratutako balioak transmititzen saiatzen gara. Prestakuntza-aldian, farmazialari-egoiliarak, bere jakintza-maila handitzeaz gain, trebetasun praktikoa ere handitzen du. Halaber, ardura apurka-apurka handituz joaten da. Gizartearekin daukagun konpromisoa zuzentasunaren printzipioetan oinarritzen saiatzen gara, eta modu arrazionalen baliatzen gizarateak gure esku jartzen dituen baliabideak. Nahi dugu emaitza klinikoak zorrotz interpretatuko dituzten profesionalak prestatu, interes komertzialetatik aparte egongo direnak. Gainontzeko profesionalakiko harreman enpatikoa eta errespetuzkoa bultzatzen dugu. Guretzat, pazientea elementu aktibo garrantzitsua da osasun-katearen barruan; horrenbestez, espezialistagaiaren prestakuntzak bideratuta egon behar du pazientearekin elkarreragin eraginkorra izatera, atxikimendua eta osasunean emaitza onak lortze aldera.

Oso ospitale espezializatua garenez, zerbitzu kliniko guztiek beste jakintza-arlo batzuetan prestatutako profesionalen lana eta laguntasuna behar izaten dute. Hori dela eta, arreta berezia jartzen dugu ondorengo eginkizun edo prozedura konplexu hauetan:

- a. Transplantea: alta-ondoko informazioa.
- b. Paziente pediatriko minbizidunaren arreta farmazeutikoa. Paziente pediatriko onkologikoaren arreta-prozesu guztiaren preskripzio elektronikoa
- c. Balioztatze transbertsala
- d. Pediatrian botikak prestatzeko eta emateko orduan izan daitezkeen arriskuak minimizatzekeo programa espezifikokoak
- e. Teknologiaren erabilera botikak emateko orduan, errakuntza-arriskua ahalik eta txikiena izan dadin
- f. Inplikazio farmazeutikoa erreferentziako unitate edota patologietan: erredura handiak, metabolo-patiak, fibrosi kistikoa edota gibealeko eta giltzurruneko transplantea

Prestakuntzarako egonaldiak eskaintzen ditugu beste zentro batzuetako profesionalentzat; batez ere, farmazia pediatrikoarekin eta alta-ondoko informazioarekin lotutako guztiari buruzko jarduerak eskatzen dituzte.



## Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES  
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA  
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA  
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea  
Prestakuntza Espezializatuko Programa  
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



GURUTZETAKO UNIBERTSITATE OSPITALEA  
HOSPITAL UNIVERSITARIO CRUCES

www

Informazio gehiago nahi izanez gero, hauxe da gure zerbitzu-zerrenda:

- **IRAKASKUNTZA**

- BAFE PRESTAKUNTZA: Ospitaleko Farmaziako Espezialisten Prestakuntzaren Gida
- GRADUAURREKO PRESTAKUNTZA: UPV/EHUko Farmaziako lizentziaturako 5. mailako ikasleen praktika tutelatua
- BESTE PROFESIONAL SANITARIOEN PRESTAKUNTZA: Farmaziako laguntzaileen praktikak
- ETENGABEKO PRESTAKUNTZA: Farmazia Zerbitzuko langileak

- **IKERKUNTZA**

- KONGRESUETARAKO ARGITALPENAK ETA TXOSTENAK
- ISAF PROIEKTUAK
- PARTAIDETZA IKERKUNTZA KLINIKOKO BATZORDE ETIKOAN
- FARMAKOTEKNIA UNITATEAREN PARTE-HARTZEA JARDUERA AKREDITATUETAN
- SAIO KLINIKOAK DISEINATZEN PARTE HARTZEA

- **LOGISTIKA ETA HORNIKUNTZA**

- MEDIKAMENTUEN AUKERAKETA
- EROSKETEN ETA KONTSUMOEN KUDEAKETA: eskaeren eta itzulketen kudeaketa, eskaerak jasotzea, kontserbatzea, inbentarioaren kontrola, kontsumoen kudeaketa eta txostenak, aurrekontuaren segimendua, hornikuntza faltaren kudeaketa

- **MEDIKAMENTUAK EMATEKO ETA BANATZEKO SISTEMAK**

- DOSI UNITARIOETAN. Preskripzio elektronikoa
- MEDIKAMENTU BEREZIAK EMATEA: estupefazianteak, erruki-medikamentuak, ikerkuntza klinikoetako laginak, atzerriko medikamentuak
- MEDIKAMENTUAK EMATEA BERREZARTZE BIDEZ ETA PAZIENTE BAKOITZEKO
- MEDIKAMENTUAK EMATEA ERITZAINZAKO UNITATEKO STOCKAREN BIDEZ





## Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES  
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA  
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA  
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea  
Prestakuntza Espezializatuko Programa  
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



Osakidetza

GURUTZETAKO UNIBERTSITATE OSPITALEA  
HOSPITAL UNIVERSITARIO CRUCES

www

- **FARMAKOTEKNIA**

- FORMULAZIO EZ-ESTERILAK. Formula magistralak
- FORMULAZIO EZ-ESTERILAK. Formula normalizatuak
- FORMULAZIO ESTERILAK. Helduen eta pediatrikoen nutrizio parenteralak
- FORMULAZIO ESTERILAK. Helduen eta pediatrikoen zitotoxikoak
- FORMULAZIO ESTERILAK. Zainetik sartzeko nahasketak
- FORMULAZIO ESTERILAK. Kolirioak, nahasketa intratekalak
- FORMULAZIO ESTERILAK, produktu biologikoekin eginak
- Medikamentuak antolatu eta ontziratu, dosi unitarioetan banatzeko

- **FARMAKOEPIDEMIOLOGIA ETA FARMAKOZAINZA**

- KONTRAKO ERREAKZIOAK DETEKTATZEKO ETA EBALUATZEKO PROGRAMA
- KONTRAKO ERREAKZIOEN BERRI EMATEA
- ALERTA FARMAZEUTIKOAK ETA MEDIKAMENTUAK ERRETIRATZEA
- MEDIKUNTZAKO ERRAKUNTZAK DETEKTATZEKO, EBALUATZEKO ETA PEREBENITZEKO PROGRAMAK
- MEDIKAMENTUEN ERABILERA EBALUATZEKO IKERKETAK

- **MEDIKAMENTUEN INFORMAZIOA ETA AUKERAKETA**

- PROTOKOLO TERAPEUTIKOAK
- MEDIKAMENTUEN EBALUAZIOARI BURUZKO TXOSTENAK
- PERTSONAL SANITARIOAREN ETA PAZIENTEEN KONTSULTAK
- TERATOGENIARI BURUZKO TXOSTENAK
- BULETINAK ETA INFORMAZIO-OHARRAK
- OSAKIDETZAK ESKATUTAKO TXOSTEN TEKNIKOAK
- OSASUN SAILEKO BATZORDEENTZAKO TXOSTEN TEKNIKOAK



## Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES  
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA  
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA  
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea  
Prestakuntza Espezializatuko Programa  
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



Osakidetza

GURUTZETAKO UNIBERTSITATE OSPITALEA  
HOSPITAL UNIVERSITARIO CRUCES

www

- ZUZENDARITZARAKO, BATZORDE KLINIKOETARAKO ETA PAZIENTEENTZAKO TXOSTEN TEKNIKOAK
- GIDA FARMAKOTERAPEUTIKOA
- MEDIKAMENTUAK ZUNDA BIDEZ EMATEKO GIDA
- MEDIKAMENTUAK BIDE PARENTERALETIK EMATEKO GIDA
- ORDEZKAPEN TERAPEUTIKOARI BURUZKO GIDA
- ETXEKO OSPITALIZAZIOAN MEDIKAMENTUAK BIDE PARENTERALETIK EMATEKO ETA ANTIMIKROBIANOEN EGONKORTASUNARI BURUZKO GIDA
- **PRESKIPZIO LAGUNDUA.** Ordenagailuz lagundutako preskripzio elektronikoaren balioztatzea.
- **ARRETA FARMAZEUTIKOA.** Arreta farmazeutikoa, ingresatutako pazienteari, ingresuak irauten duen bitartean eta alta ematerakoan; kanpoko pazienteari, eta paziente ambulatorioari.
- **BALIABIDEEN PLANGINTZA ETA KUDEAKETA.** Farmazia Zerbitzua kudeatzea eta zuzentzea.
- **ZERBITZUAREN AHOLKULARITZA** Batzordeetan parte hartzea:
  - Farmazia eta Terapeutikako Batzordea
  - Infekzioetako Batzordea
  - Etikako eta Ikerketa Klinikoetako Batzordea
  - Nutrizio Parenteral eta Enteraleko Batzordea
  - Hazkundearen Hormonaren Batzordea
  - Liburutegi Batzordea
  - Zitostatikoen Batzordea
  - Irakaskuntza Batzordea
  - Segurtasun Batzordea
  - Farmazia eta Terapeutikako Batzordea - Enkarterri Eskualdea
  - Farmazia eta Terapeutikako Batzordea - Uribe Eskualdea



## Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES  
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA  
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA  
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea  
Prestakuntza Espezializatuko Programa  
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



Osakidetza

GURUTZETAKO UNIBERTSITATE OSPITALEA  
HOSPITAL UNIVERSITARIO CRUCES

www

- Ospitaleko Medikamentuak Ebaluatzeko Batzordea (Osasun Saila)
- Osakidetzako Farmazia Batzorde Korporatiboa

Irakaskuntza Batzordeak [ikastaroak](#) ([ikusi irakaskuntza jarduerak](#)) antolatzen ditu espezialitate guztien oinarritzko prestakuntza osatzeko. Ikastaro gehienak nahitaezkoak dira azken titulazioa lortzeko.

Ospitaleak [Saio Orokorrak](#) ([ikusi irakaskuntza jarduerak](#)) burutzen ditu hileroko asteazken batean edo bitan, 8:30ean Areto Nagusian. Saio horiek funtsezkoak dira prestakuntza integrala lortzeko, espezialitatea edozein izanda ere, alde batetik, interes bereziko kasu klinikoei buruz ikasten delako, beste batetik, Ospitalearen, zerbitzuen edo unitateen funtzionamendua ezagutzeko balio dutelako – bai eta beren arteko erlazioa zein den ere – eta bukatzeko, hainbat batzordeen jarduera garrantzitsuaren berri ematen dutelako.



## Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES  
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA  
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA  
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea  
Prestakuntza Espezializatuko Programa  
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



GURUTZETAKO UNIBERTSITATE OSPITALEA  
HOSPITAL UNIVERSITARIO CRUCES

www

## Prestakuntza-ibilbidea (Errotazioak)

### Ospitaleko Farmaziako BAFEaren Prestakuntza-ibilbidea

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea (GUO) 2014-2018

|    | ekain                          | uztail                   | abuztu                              | irail                        | urri              | azaro                       | abe       | urtarril                  | otsail         | martxo                   | apiril               | maiatz     |
|----|--------------------------------|--------------------------|-------------------------------------|------------------------------|-------------------|-----------------------------|-----------|---------------------------|----------------|--------------------------|----------------------|------------|
| B1 | Zerbitzuaren ikuspegi orokorra | Optimizazio terapeutikoa |                                     |                              |                   | Nutrizioa eta Farmakoteknia |           |                           |                |                          |                      | Farm. Onk. |
| B2 | Farmazia onkologikoa           |                          |                                     |                              | Kanpoko pazientea |                             |           | Paziente kritikoen arreta |                | Optimizazio terapeutikoa |                      |            |
| B3 | Optimizazio terapeutikoa       |                          |                                     | Paziente pediatrikoen arreta |                   | Hautazko kanpoko errotazioa |           | CIM                       |                |                          | Lehen mailako arreta |            |
| B4 | Nutrizioa                      | Haut.                    | Farmazia (mayor grado de responsab) | Barne Medikuntz              | Nefro             | ZIU                         | Larrialdi | Pediatría                 | Haut. Klinikoa | Haut. Klinikoa           |                      |            |

Nahitaezko errotazioak

Hautazko errotazioak

Errotazio klinikoak

- Etengabeko Arreta – Presentzia fisikoko guardiak, espezialista batekin batera, 22:00ak arte: 5 hilean (horietako bat, igande edo jaiegunetan)
- Mintegi, Ikastaro eta Saio Klinikokoak: parte hartzea nahitaezkoa da Ospitaleak eta Zerbitzuak antolatutako jarduera guztietan, hala egoiliarrentzat beren-beregi antolatuetan nola orokorretan.



## Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES  
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA  
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA  
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea  
Prestakuntza Espezializatuko Programa  
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



Osakidetza

GURUTZETAKO UNIBERTSITATE OSPITALEA  
HOSPITAL UNIVERSITARIO CRUCES

www

BAFEak kanpoko egoitza-aldiak egin ditzake estatuko zein nazioarteko hainbat zentrotan. Irakaskuntzako Batzordeak eta gure zerbitzuak akreditatutako zentroetan egonaldia eta prestakuntza jasotzea ahalbidetzen dute.

Ospitaleko Farmaziaren Espainiako Elkarteak eta zenbait ospitalek ikastaro-eskaintza oparoa dute, aurrez aurrekoak zein urrutikoak. Horien programazioa egoiliar bakoitzaren profilari egokitzen saiatzen gara. Honako hauek bereziki garrantzitsutzat jotzen dira:

1. **Curso de Monitorización de Fármacos en la práctica clínica** Salamancako Unibertsitatea
2. **Curso intensivo de antibioterapia** DR L Drobnic Hospital del Mar
3. **Curso de Evaluación y Selección de medicamentos** Virgen del Rocío eta Son Espases Farmaziako zerbitzuak / **Curso de Evaluación y posicionamiento terapéutico de medicamentos en el hospital. Metodología GENESIS.** Ospitaleko Farmaziaren Andaluziako Elkarteak
4. **Etengabeko Lanbide Garapena SEFH**



## Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES  
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA  
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA  
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea  
Prestakuntza Espezializatuko Programa  
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



Osakidetza

GURUTZETAKO UNIBERTSITATE OSPITALEA  
HOSPITAL UNIVERSITARIO CRUCES

www

## Ikerkuntza

[BioCruces Ikerkuntza Institutuaren](#) sostengua du Ospitaleak ikerketarako. Ospitaleak hainbat ikerketa-lerro zuzentzen ditu, eta beste hainbatetan parte hartzen du sarean:

- Informazio eta Komunikazio Teknologiak, Arreta Farmazeutiko ez presentzialera egokituak (TICAFAN)
- Medikazioaren kontziliazioa Hodietako Kirurgian ingresatzean (PasQ proiektua)
- Preskripzio elektronikoaren ebaluazioa eta sustapena Larrialdietako Zerbitzuan, paziente kronikoaren osasun-arreta hobetzeko
- FIS beka, zentroen arteko “prevención de los errores de preparación de fármacos en unidades de cuidados intensivos neonatales” proiekturako.

Halaber, Farmazia Industriarekin dihardugu elkarlanean, Saiakuntza Klinikoak gauzatzeko.

Egoiliarra arian-arian hasten da ikerketa-lanetan, eta egoitza-aldiko 2. urte amaitu ondoren, bere doktore-tesiari ekin diezaioke.

Hemen duzu Jarduera zientifikoari buruzko informazio xeheagoa:

[Ospitalea > Ikerkuntza > Memoria Zientifikoa](#)



## Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES  
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA  
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA  
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea  
Prestakuntza Espezializatuko Programa  
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



Osakidetza

GURUTZETAKO UNIBERTSITATE OSPITALEA  
HOSPITAL UNIVERSITARIO CRUCES

www

## Prestakuntzaren ebaluazioa

Ebaluazioa ikasketaren motorra da eta ikasketa erraztera zuzenduta dago, beraz, indarrak eta ahultasunak antzeman eta hobekuntza planak ezarriko ditu. “**Ebaluazio formatiboa**” deitutako ebaluazio mota horretarako, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleak gaitasunetan oinarrituta dauden zenbait metodo kualitatibo erabiltzen ditu. Behean aipatuko diren metodo horiei esker, informazio zehatz bat iturri anitzetik lortu eta hainbat ikuspegi izan ditzake (gainbegiralearen ebaluazioa, norberak egindako hausnarketa eta autoebaluazioa). Informazio horrekin, **Urteko Ebaluazio Batzordeak** txosten bat lantzen du aho batez, eta bertan, egoiliarren indarrak eta hobetzeko arloak (egongo balira) adierazten dira. Gaitasunetan oinarritutako txosten honek ezinbestean egindako ikastaroen egiaztagiriarekin batera “**Egoiliarren Urteko Txostena**” osatzen dute. Tutorea prestakuntza prozesu guztiaren kudeaketaren arduraduna da eta Urteko Txostena emango dio ikasleari.

Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Alergia Zerbitzuko BAMEek (Barruko Mediku Egoiliarrak) lortu beharreko gaitasunak, Ospitaleko irakaskuntza Batzordeak zehaztutakoaren arabera:

1. Balio profesionalak, jarrerak, jokabidea eta etika.
2. Pazientea zaintzea eta trebetasun klinikoak.
3. Ezagutza medikoak / medikuntzaren oinarri zientifikoak.
4. Komunikazioa
5. Osasun sistemaren testuinguruan oinarritutako praktika (Osasunaren sustatzailea eta Baliabideen Kudeatzailea).
6. Ikaskuntzan eta hobekuntzan oinarritutako praktika (Análisi kritikoa eta ikerketa).
7. Informazioaren erabilera.

Asistentzia- eta irakaskuntza-gaitasunak, espezialitatearen beraren ikerketa gaitasunekin batera, hemen biltzen dira: [Programa oficial de la especialidad de Endocrinología y Nutrición.](#)



## Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES  
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA  
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA  
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea  
Prestakuntza Espezializatuko Programa  
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



GURUTZETAKO UNIBERTSITATE OSPITALEA  
HOSPITAL UNIVERSITARIO CRUCES

www

### Gurutzeta Unibertsitate Ospitaleko ebaluazio sistema orokorra<sup>1</sup>.

[Irakaskuntza Batzordeak](#) eta Gaitasunen Ebaluazio Batzordeak ebaluazio sistema zuzentzen dute. Sistema hori Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea 2008. urtetik garatzen joan den [“Gaitasunetan oinarritutako Prestakuntza Espezializatua”](#) proiektuaren parte da. [Ebaluazio metodoak](#) hauek dira:

- Txandatze bakoitzaren Gainbegirale zuzenaren ebaluazioa, Gaitasunetan oinarritutako formulario baten bidez (Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko berezko eredu)
- Tutorearekin aldi behingo elkarrizketak (gutxienez urtean bi)
- Autoebaluazioa
- Urteko Memoria (Egoiliarren Liburuaren baliokidea da) bi alderdi hauek sartzen ditu: jasotako gaitasunen gaineko hausnarketa eta asistentzia-, irakaskuntza- eta ikerketa-jardueren zein lanbidearekin erlacionatutako beste ekintzen kuantifikazioa
- Gaitasunetan oinarritutako Tutorearen urteko txostena
- Ebaluazio Batzordearen urteko balorazioa
- Irakaskuntza Batzordeak antolatutako derrigorrezko ikastaroak egitea
- Gaitasunetan oinarritutako urteko banako txostena

### Egoiliarren ebaluazioa jasotako Prestakuntzaren gainean.

- Urtero, apirilean, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko egoiliar guztiei gogobetetze inkesta bat bidaltzen die.
- Bi urtean behin, otsaila eta martxoa bitartean, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Irakaskuntza Batzordeak gogobetetze inkesta bat bidaltzen du. Inkesta hau orain dela 20 urte egiten da.

Emaitzak zerbitzuei eta egoiliarrei jakinarazten zaie.

Emaitzak zerbitzuei eta egoiliarrei jakinarazten zaie.

<sup>1</sup> Morán-Barrios J, Amutio E, Barbier L, Carrasco A, Gil-Lemus MA, Gómez B, Iriberry M, Padilla L, Rodríguez-Iñigo MA, Saá R, Larrañaga I, Nieto J, Udaondo J y González-Larragán S. Evaluación del residente basada en competencias. El modelo del Hospital Universitario de Cruces. XXI Congreso de la Sociedad Española de Educación Médica Madrid 2013. FEM 2013; 16 (Supl 2): S62. Disponible en: <http://www.sedem.org/resources/abstractsSedem2013.pdf>.





**Osakidetza**

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES  
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA  
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA  
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

**Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea**  
**Prestakuntza Espezializatuko Programa**  
**Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)**



**Osakidetza**

**GURUTZETAKO UNIBERTSITATE OSPITALEA**  
**HOSPITAL UNIVERSITARIO CRUCES**

www



**Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Farmaziako Zerbitzua ©**